



Tourra 91



Indurain jaun eta jabe

Indurain

Txapeldun

Atzoko erlojupekoa irabazi eta gero, gaur Parisen garaile sartuko da Miguel Indurain. Piriniotan mailot horia jantzi zuenetik sendo agertu da eta maila goreneko aurkariak izan arren, hauek indarge azaldu dira Atarrabiako mozkotearen aurrean. Erlojupekoetan etsairik gabe, jaun eta jabe. Pirinio eta Alpeetako mendian nagusi. Ordekan fin. Akats bat bera ere ez du izan Banestoko txirrindulariak Tourrean.

Val Louronetik aurrera karrera kontserbadorea egin du Bugno, Chiappucci eta abarrei eutsiz. Ez zuen eraso egiteko beharrik. Gainerantzekoak ez dira Induraini erasotzeko gai izan. Gaur Euskal Herritik jendetza handia hurbilduko da Parisera, Induraini garaile handiak merezi duen harrera egiteko. Tourreko Jauna bihurtu da nafarra, Eguzki Errege. Adu guztiek txalotu dituzte Atarrabiakoaren klasea eta indarra. Baita Banestok liderra babesteko egin duen lana ere. Eta Indurainek lasaitasuna mantendu du, oreka inoiz galdu gabe. Bere buruaz ziur, erakutsi duen nagusitasuna erabatekoa izan da. Urte asko eman ditu une honetarako prestatzen, eta aukera ikusi duenean ez du hutsegin. Bete betean asmatu du.



Pariseko eguna heldu da. Azken asteetan hainbeste alditan aipatu duguna errealtate bilakatuko da gaur Miguel Indurainentzat. Nafarrak merezitako garaipena eskuratu du Frantziako errepedetan.

Klasea eta indarra

PONTIANO ARBELAIZ

Urte batzuk badira Indurainek barrenean klase eta indar asko duela erakutsi zuenetik, eta aurten ondo irabazi du Tourra. Kontrario handiak izan ditu, baina igotzen beti aurrekaldean ibili da, hainbeste kilo izan arren. Kontrarrelojetan ere zer esanik ez, etsairik ez du izan. Atzo lasai hasi zen, Bugno kontrolatzen, eta helmugara oso eroso iritsi zen, erraztasun handiz. Mar-txa horretan beste kilometro mordoska ere egingo zituen.

Pirinioetan mailot horia jantzi arren, ez da inoiz gehiegi fido, eta karrera nahiko kontserbadorea egin du. Alpeei beldurra ere bazien, eta berak gainera ez zuen eraso beharrik. Besteak ziren atakatu behar zutenak, eta Indurainek gupil onari jarraitzearekin nahikoa zuen. Bugno oso ondo ibili da, Chiappuccik ere Tour bikaina egin du, eta horrela ez da samurra izaten liderra atakatzeko has-tea. Tourmaletan Lemondekin zer gertatu zen ikusi besterik ez dago. Bere burua indartsu ikusi eta eraso-a bota zuen, baina gero etorri ziren

kontuak.

Aurreko urteetan ere izan zezakeen Tourra irabazteko aukerarik, baina ez du presarik izan. Indurain mutil itxia da, umila, eta iaz aurten bezain ondo egon arren, orduan Delgadok agintzen zuen. Indurain irabaztera irten balitz, nik uste aukera handiak zituela. Oraindik gaztea da orde, eta Tourra berriz irabazteko aukera izango du, hori beti zaila bada ere. Beharko dugu, euskal txirrindularitza ahul samar azaldu bait da Indurain alde batera utzita.